



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Miren Urbietta-Vega sopranoak, Ainhoa Zubillaga mezzoak eta Rubén Fdez. Aguirre piano joleak konposatzaile frantsesei eskainitako zikloari berrekingo diote

- Arriagako Ziklo Frantseseko lau errezitaldietako hirugarrena apirilaren 16an izango da, arratsaldeko 20:00etan, Camille Saint- Saënsen, Ernest Chaussonen eta Gabriel Fauréren musikari eskainita.

Bilbon, 2018ko apirilaren 13an.- Arriaga Antzokiak musika frantsesari eskainitako zikloari berrekingo dio datorren astean, astelehenean, apirilaren 16an, 20:00etatik aurrera, **Miren Urbietta-Vega** sopranoak, **Ainhoa Zubillaga** mezzoak eta **Rubén Fdez. Aguirre** piano joleak eskainiko duten emanaldiarekin. Errezitaldiak, "Ziklo Frantsesa" osatzen duten lauen artean hirugarrenak, XIX. eta XX. mendeen arteko Frantziako hiru konposatzaile azpimarragarrienetakoen orrialde bikainak eta oso ohikoak ez direnak eskaini nahi ditu: Camille Saint- Saëns, Ernest Chausson eta Gabriel Fauré.

Camille Saint-Saëns (1835-1924) Gounoden ikaslea izan zen, eta bere ohiko dotoretasun melodikoarekin bi ahotsetako abestiak idatzi zituen, horietako bat gaztelaniaz, *El Desdichado*, Pauline Viardot abeslari eta konposatzailearen alabei eskainitakoa. Ernest Chausson (1855-1899) liluratuta zegoen Wagnerrekin, eta modu tragikoan hil zen XIX. mendearen amaieran, baina ahozko musikarako zuen artea geratu zen, naturaren deskribapen bikainak ziren bere abestien koadernoekin. Amaitzeko, Gabriel Fauré (1845-1924) prolificoa, mélodie-aren maisua, Gounoden erromantizismoaren oinordekoa zen, baina bere azken garai modernistan estilo konplexuagora jo zuen, harmoniaren eta melodiaren ikuspegietatik. XX. mendeko konposatzaile frantsesek bere eragina jaso zuten.

Ziklo Frantsesa

Ikuskizuna, Arriaga Antzokiak denboraldi honetan musika frantsesari eskaini dion zikloko hirugarrena da. Zikloa joan den otsailaren 12an hasi zen, Ainhoa Zuazua sopranoak eta Rubén Fdez. Aguirre piano joleak eman zuten errezitaldiarekin, errezitatzaile gisa aritu zen Olatz Ganboa antzezlearekin. Zikloak hilabete bereko 25ean izan zuen jarraipena, Karmele Larrinaga antzezleak lagunduta aritu zen Antonio Oyarzabal piano jolearen emanaldiarekin. Azken emanaldia maiatzaren 21ean izango da, eta Elena Coponsek eta Rubén Fdez. Aguirrek berak, Poulencen, Duparcen eta Pedrellen musika interpretatuko dute.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 12 eta 15 euro artean
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean, 946 850 850 telefonoaren bitartez edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa – ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus

www.teatroarriaga.eus